

MUGAK ZABALDUZ KARABANA ETORKINEN ETA ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDE

Euskal Herriko Eskubideen Karta sinatu dugun erakunde sozial eta sindikalok babesa agertu nahi diogu Mugak Zabalduz Karabanari. Uztailaren 14an, Melillarantz abiatuko da, etorkinek eta errefuxiatuek Hego Mugan pairatzen duten Giza Eskubideen urraketa sistematikoa salatzen. Xede dugun jendarte-ereduaren erdigunean, bizitza dago, eta bizitza jokatzeko dute, hain zuzen ere, gerratik eta miseriatik ihesi dabilzanek.

Salatzen dugu etorkinek eta errefuxiatuek jasaten duten egoera egungo migrazio-politika hiltzaile eta antisozialen ondorio dela; halako politiken ondorio dira, halaber, biztanleriaren pobretze orokortua eta aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa. Borrokatu beharra dugu, eta eskubide politiko, zibil eta ekonomikoak pertsona guztiei hedatu.

Gobernuek barnerarazi nahi dizkiguten arrazismoaren eta xenofobiaren muina honelako baieztapen faltsuak dira: “Lana kentzen digute”, “Gaizkileak eta terroristak dira”, “Gure gizarte-laguntzez aprobetxatzen dira”, “Inbaditu egiten gaituzte”, etab. Halako adierazpenek ez dituzte kontuan hartzen neokolonialismo-formak, alegia, egungo eredu herrialde aberastuek Munduko Hegoaldeko herrialdeak mendean izateko.

Europako Batasunean, 119 milioi pertsona baino gehiago pobrezia-arriskuan daude; ondorioz, barne-migrazioak izaten dira herrialde kideen artean. Lan-prekarietatea enpresen eta herrialdeen arteko lehiaren funtsezko osagaia da, orokortua sektore jakin batzuetan (eraikuntza, garraioak, haragi-industria, gizarte-arreta eta etxeko lana), eta EBko langileen arteko barne-migrazioen esplotazioa legeztatzen du.

Nekropolitika da sistema ekonomiko kapitalista eta patriarkalak bultzatzen dituen bideetako beste bat: pertsonak esplotatzeaz eta kanporatzeaz gain, hiltzen uzten ditu. Nazioarteko krimen hutsak dira. Erailtzen dira mugimendu ekologista, feminista eta LGTBko buruzagiak, nekazariak eta indigenak, beren lurra proiektu hidroelektriko erraldoien kontra babestegatik, baina sistema kapitalistak sobera dituen pertsonak ere ezabatzen dira: kontsumitu edo ekoiztu ezin dutenek enbarazu egiten dute, eta giza hondakin bihurtzen dira (Bauman).

Sistema kapitalistak jendea behar du oraindik, eta eskulan migratzailea izaten jarraituko du. Baina eskulan horrek ez du eskubiderik izango, eta lan egingo du eraikuntzan, ostalaritzan edo zaintzan, eskulan merke eta prekarizatu bihurtua. Hala, soldatak jaitsi eta lan-baldintzak eskatu egingo dira, jende esplotatuaren eta jende pobrearen arteko gatazka-prozesu batean -kapitalak eta gobernu konplizeek bultzatuta-, nazional pobreen eta atzerritar pobreen artekoan. “Gerra” horrek kapitalismoari egiten dio mesede, eta arrazismoaren eta xenofobiaren euskarri da.

Errefuxiatuak eta migratzaileak pobreen arteko gerra islatzen eta are sakonagoa egiten duen ikurra dira. Oso funtzionalak dira sistema kapitalistarako, eta bere urrezko arauetako bat: eskulan, formal edo informal, merkea eta prekariora, langileen eskubideen murrizketarako bidea formalizatzen duena.

Gure mespretxu osoa Europako erakunde eta gobernuentzat, kapitalaren eskubideak babesten eta pertsonen eskubideak urratzen ari direlako. Proiektu neoliberal, patriarkal, militarizatu, baztertzailerik eta erregresiboa defendatzen dutenen aurrean, guk elkartasun internazionalistaren alde egiten dugu, pertsonen eta herrien arteko topaketan oinarritua.

CARAVANA ABRIENDO FRONTERAS POR LOS DERECHOS HUMANOS DE LAS PERSONAS INMIGRANTES Y REFUGIADAS

Las organizaciones sociales y sindicales que suscribimos la Carta de Derechos de Euskal Herria queremos mostrar nuestro apoyo a la Caravana Abriendo Fronteras que partirá hacia Melilla el 14 de julio a denunciar la vulneración sistemática de los Derechos Humanos de las personas inmigrantes y refugiadas en la Frontera Sur. Defendemos un modelo de sociedad que ponga en el centro el sostenimiento de la vida y es precisamente la vida lo que se juegan quienes huyen de la guerra y de la miseria.

Denunciamos que la situación que soportan las personas inmigrantes y refugiadas son consecuencia de las políticas migratorias asesinas y antisociales que se vienen aplicando y que están dando lugar a un empobrecimiento generalizado de la población y a una distribución de la riqueza cada vez más injusta. Es necesario luchar y defender la extensión de los derechos políticos, civiles y económicos a todas las personas.

El racismo y la xenofobia que nos quieren inocular los gobiernos se sustentan sobre afirmaciones falsas como “nos quitan el trabajo”, “son delincuentes y terroristas”, “se aprovechan de nuestras ayudas sociales” “nos invaden”... etc. Estas afirmaciones no tienen en cuenta las formas de neocolonialismo modelo actual de dominación de los países enriquecidos sobre los países del Sur Global.

En la Unión Europea más de 119 millones de personas se encuentran en riesgo de pobreza lo que provoca migraciones internas entre los países miembros. La precariedad laboral es un elemento fundamental de la competencia entre empresas y países, se da de forma generalizada en sectores como la construcción, transporte, industria cárnica, asistencia social y trabajo doméstico y legaliza la explotación de las migraciones internas entre trabajadores y trabajadoras de la UE.

La necropolítica es otra de las vías impulsadas por el sistema económico capitalista y patriarcal, que no consiste solo en explotar y expulsar, sino en dejar morir a la gente. Se trata de verdaderos crímenes internacionales. Se asesina a líderes y lideresas de los movimientos ecologistas, feministas, LGTB, campesinos e indígenas por defender su tierra en contra de los grandes proyectos hidroeléctricos, pero también se elimina a personas que le sobran al sistema capitalista, quienes no puedan consumir o producir estorban y se convierten en desechos humanos (Bauman)

El sistema capitalista todavía necesita gente y va seguir contando con mano de obra migrante. Pero va a ser una mano de obra sin derechos, que trabajará en sectores como la construcción, la hostelería o los cuidados convertida en mano de obra barata y precarizada. Esta situación provocará una bajada de salarios y de condiciones de trabajo en un proceso -inducido por el capital y los gobiernos cómplices- de enfrentamiento entre gente explotada y entre gente pobre; entre nacionales pobres y extranjeros pobres. Una “guerra” que favorece el capitalismo y sustenta el racismo y la xenofobia. Las personas refugiadas y migrantes son un símbolo que expresa y profundiza la guerra entre pobres. Son muy funcionales al sistema capitalista, convirtiéndose en una de sus reglas de oro: mano de obra, formal o informal, barata y precaria, que formaliza la carrera hacia abajo de los derechos de trabajadoras y trabajadores.

Todo nuestro desprecio a las instituciones y gobiernos europeos por proteger los derechos del capital y vulnerar los derechos de las personas. Frente a quienes defienden un proyecto neoliberal, patriarcal, militarizado, excluyente y regresivo, nosotras y nosotros defendemos la solidaridad internacionalista, basada en el encuentro de las personas y los pueblos.